

Sohütan, 1996ko uztailaren 20an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., euskaltzainburoordea
Knörr, E., idazkaria
Arana, J.A., diruzaina
Altuna, P.
Charritton, P.
Davant, J.L.
Diharce, X.
Goenaga, P.
Irigoyen, A.
Kintana, X.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
Peillen, Tx.
San Martin, J.

Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea
Zearreta, J.J., ekonomia eragilea

Sohütako herriko etxean, 1996ko uztailaren 20an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren euskaltzainak han zirela. Ezin etorria adierazi dute M. Azkarate, F. Krutwig, P. Ondarra, P. Salaburu, I. Sarasola, J.M. Sarustegi eta L. Villasantek.

Agiria

Ekaineko batzar agiria onartu da, salbu puntu batean; J.M. Satrustegik igorri duen aldaketa proposamenaren gainean idazkariak hitz egingo dio.

Gaietan sartu baino lehen, euskaltzainburoak goresmenak eman dizkio Alfonso Irigoyeni, Labayru Ikastegiak berriki egin dion omenaldiagatik.

Hizkuntz Arauak

Mundu zabaleko uharteak deritzan txostena, Onomastika batzordeak ondua eta Euskara Batuko batzordeak bere azken bilkuran ikusia, aztertu da egun. Izen asko zuzendu dira: B. Oihartzabalek proposatu bezala, *Artikoa* erabaki da, adibidez, *ez Artiar*. A. Irigoyen eta J. San Martin *-ar* atzizkia gehiegi sartzearen kontra agertu dira. X. Kintana eta E. Knörr-ek atzizki horren egokitasuna defendatu dute. J.L. Lizundiak esan du *Artiko* onartzeak *ez* dakarrela *Britaniko* onartzea. Ildo horretatik, *Aleutiar*, *Balear* eta beste izango da araua. B. Oihartzabalek eskatu du zerrendan *uharteak* eranstea, bat baino gehiago direnean, nahiz gero erabileran beti beharrezko ez izan. P. Goenagaren eskearen arabera, adieraziko da zeinek eramango duen *uharteak* aldamenean. E. Knörrek iradokirik, *Ingeles Kanaleko uharteak*, testu zaharretan ohizko izena, ezarriko da. Goenaga jaunak *La Gomera* eta antzekoetan artikulua atxikiko den galdetu du, eta E. Knörrek izen batzuetan erdarazko genero marka ez ote den itzuri. Zerrendan izen batzuk falta direnez eta eztabaidan zenbait zalantza sortu direnez, beste zerrenda bat aurkeztuko da iraileko batzarrean, izen horiekin.

Biblia izenak eta *Greziako izen klasiko batzuk* izeneko txostenak aurkeztu dira. *Diapositiba-dotrina* hitzen arteko saila ere banatu da egun. Oharrak irailaren 10a baino lehen bidali beharko dira.

1997ko aurrekontua

Jose Antonio Arana diruzainak eta Juan Jose Zearreta ekonomia eragileak egin dute azalpena. Ekaineko batzarrean aurkeztu proposamenari epe barruan oharrik egin ez zaienez, aurrekontua onartu da. Hala ere, Zuzendaritzak egoki iritzirik, argitalpen guztiak zerrenda berezi batean sartzea erabaki da. Bestalde, d'Abbadieren omenezko Biltzarra aurrekontutik kanpo geldituko da, bere dirubidea izango duelako esperantzan.

A. Irigoyen M.A. Libano andrearen *Toponimia medieval en el País Vasco* liburua- ren 2. tomoa argitaratzearen kontra mintzatu da, bai eta Mikel Gorrotxategi hitzartzea- gatik dudakor agertu ere. E. Knörr Onomastika batzordeburuak oroitarazi du *Toponimia medieval en el País Vasco* liburua Euskaltzaindiaren argitalpen batzordeak onartu zuela; lehen liburukia, esan du, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Arabako Diputazioaren laguntzaz plazaratu da eta bigarrenak ere badu diru babesa. Ondoren, *Onomasticon Vasconiae* sortaren helburua gogorarazi du, hots, onomastika materialak eta ikerketak ar- gitaratzea. Onomastika batzorde idazkariak denaz bezain batean, Knörr jaunak esan du azpiegitura egokirik gabe eginkizunak ezin daitezkeela inola ere aurrera eramán.

Eskuartekoak

Euskararen Aholku Batzorde eratu berrian M. Azkarate eta B. Oihartzabal euskal- tzain osoak, eta A. Eguzkitza eta E. Etxezarreta urgazleak kide izendatu direla aditzera eman du Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.

Orotariko Euskal Hiztegian bi langile berri kontratatu direla esan du halaber Ha- ritschelhar jaunak, bi hutsune gertatu baitira.

F. Krutwig euskaltzain izendatu zenetik 1997an berrogeita hamar urte beteko direla eta omenaldi liburu bat eskainiko zaiola esan du ere euskaltzainburuak. Gutunak igorri zaizkie euskaltzain osoei.

Euskaltzaindiak 7.7. irango janaren iritzi batzuk zirela eta *Diario de Navarra* bidali iragarki ordaindua ez zuen argitaratu nahi izan egunkari horrek, Onomastika batzordeburuak adierazi duenez. Zuzendaritzak horrela erabakirik, testua beste era batez za- baldu da Nafarroan.

Euskera aldizkariaren azken alea (1994, 2-3) eta Euskaltzaindiaren 1995ko *Oroit- idazkia* banatu dira batzartuen artean.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.